

HARREMANAK BEZEROEKIKO

Gure enpresa berria denez, bezero berriak lortzen saiatuko gera, alde batetik prezioak lehiakor eginez, eta bestetik gure eta bezeroekiko harremanak estutuz. Horretarako, honako metodoa erabiltzea pentsatu dugu. Honen guztiaren helburua bezero potentzial oro erakarri eta mantentzea da, gure enpresak merkatuan bere lekua ahal bezain laister aurki dezan. Ziurrenik aurrerago alderdi hau birplanteatu beharra egongo da, denda bate do halako zerbait sortzeko premia izan baitezakegu:

- Zerbitzu mekanizatua eskeiniko dugu, web orri bat sortzen ari garelako enpresaren produktua errazago eta leku gehiagotan merkaturatu ahal izateko. Web orri honetan ordea, bezeroek haien zalantzak, iritzia etab. Idatzi ahal izango dituzte, bai guk eta bai bezero berriek hauek erabil ditzagun produktua hobetu eta honi buruz informazioa eskuratzeko.
- Gainera, web orria gustuko ez duenarentzat, erabili ezin duenarentzat edo honek zalantzak argitzen ez dizkionarentzat telefono bat prestatuko dugu, harreman personal batera jo ahal izan dezaten. Telefonoa gainera erosketa guztietan erabiltzea edukiko dugu.